



Hospital | Ospitalea
San Juan de Dios
Santurtzi


100
Urte
1924-2024

Humanidad
y Ciencia

2024ko
MEMORIA

100
Urte
1924-2024





Hospital | Ospitalea
San Juan de Dios
Santurtzi **100**
Urte | Humanidad
1924-2024 | y Ciencia



2024ko MEMORIA





Santurtziko SAN JOAN JAINKOARENA ospitalea | 2024ko Memoria





AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	03
2.	BALIABIDE MATERIALAK	04
3.	PERTSONAK ETA BALIOAK	04
4.	BALIABIDE EKONOMIKOAK	06
5.	LAGUNTZA-JARDUERAK	07
5.1.	KANPO-KONTSULTAK	07
5.2.	LARRIALDIAK	08
5.3.	OSPITALIZAZIO MEDIKO-KIRURGIKOA	09
5.3.1.	OSPITALIZAZIO OROKORRA	09
5.3.2.	EGUNEKO OSPITALEA	10
5.3.3.	ZAINTZA ARLOA	10
5.4.	ARLO KIRURGIKOA	13
5.5.	ERREHABILITAZIOA	14
5.6.	ZERBITZU OROKORRAK: LABORATEGIA ETA ERRADIODIAGNOSTIKOA	14
6.	ARRETA ESPIRITUAL ETA ERLIJIOSOKO ZERBITZUA	15
7.	ETIKA ETA BIOETIKA	16
8.	ELKARTASUN ARLOA	17
9.	ERABILTZAILEAREN KALITATEA ETA ESPERIENTZIA	19
10.	OSPITALEAREN MENDEURRENEKO EKITALDIAK	20
11.	NABARMENDU BEHARREKO BESTE ALDERDI BATZUK	22
12.	ZERBITZUEN ZORROA	24
13.	MENDEURRENEKO URTEA IRUDIETAN*	25*



1. AURKEZPENA



2024. urtea mugarria izan da Santurtziko San Joan Jainkoarena ospitalearen historian. Mende oso bat eman dugu lanean, jendea zaindu dugu eta bokazioa izan dugu, eta jaiotako esentzia berarekin ospatu dugu: pertsonen osasunarekiko eta ongizatearekiko konpromisoarekin. Fundación Benéfica Aguirre eta San Joan Jainkoarenaren Ospitale Ordenaren lankidetzari esker, “bizkaitar minduen” alde, ehun urte hauetan ospitaleak eboluzionatu egin du, azpiegituretan haziz, teknologia berriak txertatuz eta pazientearen duintasunean oinarritutako arreta eredua finkatuz, San Joan Jainkoarenaren antzera.

Memoria honek, gure mendeurrenaren urteko mugarriak jasotzeaz gain, ospitale hau egunez egun erreferente bihurtu dutenen espiritua ere islatzen du. Asistentzia eremutik hasi eta elkartasun jardueraraino, berrikuntza medikotik arreta humanizatura, datu bakoitza, ekintza bakoitza eta lorpen bakoitza etorkizunera begira jarraitzen duen bide baten parte dira, hasieran izan zuen zerbitzu bokazio berdinarekin.

Orrialde hauetan zehar, 2024 hau markatu duten aurrerapenak, gainditutako erronkak eta ekimenak partekatu nahi ditugu. Baina, batez ere, omenaldia egiten diegu ehun urte geroago arreta integrala, hurbila eta kalitatezkoa eskaintzen jarraitzea ahalbidetzen dutenei: medikuak, erizainak, laguntzaileak, teknikariak, administrariak, mantentze lanetako, garbiketako eta logistikako langileak, boluntarioak, kolaboratzaileak eta Anaiak. Izan ere, horiek guztiak ehun urtetik gorako historia honen eta elkarrekin eraikitzen jarraitzen dugun etorkizun baten funtsezko parte dira. Jarrai dezagun bikaintasunez eta gizatasunez zaintzen.

2. BALIABIDE MATERIALAK

BALIABIDEAK	UNITATEAK
Gelak	69
Oheak	90
Kirofanoak	5
Erresonantzia magnetikoa	1
64 mozketako OTA	1
Mamografoa	1
Ekografoak	5
Ortopantomografoa	1
Kontsulta lekuak	18
Behaketa boxak (Larrialdiak)	3



3. PERTSONAK ETA BALIOAK

Ospitaleko batez besteko plantilla baliokidea abenduaren 31n 268,58 profesionalak osatzen zuten. Horietatik 208,78 (% 77,73) asistentzia eremuko kategorietakoak ziren, eta beste 59,8 (% 22,27), berriz, administrazio arlokoak edo zerbitzu orokorretakoak (Z.O.). Generoaren arabera banaketaren emaitza honako hau da: emakumeak % 76,8 dira eta gizonak % 23,2. 2024an ospitaleko batez besteko plantilla baliokidea 267,52 pertsonakoa izan zen.

Generoaren arabera



Langileak lanbide kategoriaren arabera

KATEGORÍA	OROKORRA	
Kategoria	Kop.	%
Laguntza arloko profesionalak		
Lizentziatuak	27,32	10,17
Teknikariak	89,44	33,30
Laguntzaileak	92,02	34,26
Guztira Laguntza arlokoak	208,78	77,73
Z.O.-ko profesionalak		
Zuzendaritza arlokoak	5	1,86
Lizentziatuak	1	0,37
Teknikariak	7	2,62
Ez kualifikatuak	26,59	9,90
Administrariak	20,21	7,52
Z.O. guztira	59,8	22,27
Langileen guztizkoa	268,58	100

Prestakuntza

Pertsona eta Balioen Sailaren politiketako bat da langile guztiek beren lana egiteko beharrezkoa, egokia eta osagarria den prestakuntza izan dezaten lortzea, Ospitaleko Prestakuntza Planarekin bat. Prestakuntza politikak ezagutzak eguneratzen, motibatzen eta trebetasun eta gaitasun berriak eskuratzen laguntzen du, Ospitaleko arreta estiloarekin bat datorren kalitatezko zerbitzu bat gauzatzen laguntzeko.

2024an guztira 1.411 ordu eman ziren prestakuntzan, 5,25 ordu langile bakoitzeko.

Langile kategoria	Orduak
Laguntza arloko lizentziatuak	62
Laguntza arlokoak ez diren lizentziatuak	141
Laguntza arloko laguntzaileak	60,5
Laguntza arloko teknikariak	256
Laguntza arlokoak ez diren teknikariak	510
Administrariak	12
Zuzendaritza arlokoak	351,5
Ez kualifikatuak	18
Guztira	1.411
Batez beste langileko	5,25

Langile motari dagokionez, laguntza arlokoek 378,5 prestakuntza ordu egin zituzten, % 26,82, eta laguntza arlokoak ez diren langileek 1.032,5 ordu (% 73,18).

Langile mota	Orduak	%
Laguntza arloa	378,5	26,82
Laguntza arlokoa ez dena	1.032,5	73,18
Batura	1.411	100

Praktikaldian dauden ikasleak

Ospitalea erreferente bat da osasun eta gizarte arloko etorkizuneko profesionalentzat ere. Praktikak egin zituzten 104 pertsonetatik, gehienak Erizaintzako Graduko, Erizaintzako eta Zaintza Osagarrietako Teknikariko eta Medikuntzako ikasleak izan ziren.

MOTA	Kop.
Gizarte Lana	4
Medikuntza	14
Fisioterapia	4
Erizaintzako Zaintza Osagarrietako Teknikaria	27
Erradiologiako teknikari espezialista	11
Erizaintzako gradua	36
Osasun Dokumentazioa	5
Farmaziako gradua	1
Farmazia eta Parafarmaziako teknikaria	2
Guztira	104



4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitalea irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta, beraz, bere jardueratik lortutako soberakinak berriro inbertitzen dira lan baldintzak hobetzeko eta ekipoak eta instalazioak berritzeko, bai eta ekintza solidarioak garatzeko ere, bai tokiko esparruan, bai garapenerako nazioarteko lan-kidetzan.


Baliabide nagusiak laguntza zerbitzuak ematek datoz, bai erakunde publikoekin egindako hitzarmen araubidetik -Osakidetza eta Bizkaiko Foru Aldundia-, bai aseguru etxetatik eta izaera pribatuko pazienteetatik. 2024an diru sarrera gehien eragin zituzten arloak kirurgia (% 26,3), ospitalizazioa (% 20,4), zerbitzu orokorrak -errehabilitazioa, erradio-diagnostikoa eta laborategia- (% 16,1) eta larrialdiak (% 14,8) izan ziren.

Gastuei dagokienez, talde handienak langileak (% 58,85) eta erosketak (% 25,92) izan ziren.


2024an Ospitaleak 2.051.635,96 euroko inbertsioak egin zituen, batez ere, instalazio teknikoak modernizatzeko eta zenbait tresna erosteko, hala nola aparatu eta ekipo mediko asistentzialak (besteak beste, arku kirurgiko bat, ekografo bat eta elektrobisturi bat).

INBERTSIOAK	
Instalazio teknikoak	1.568.578,43
Altzariak	36.845,54
Ekipoak eta tresneria	446.211,99
Guztira	2.051.635,96

Diru sarrerak arloka



Gastuak motaren arabera



5. LAGUNTZA JARDUERAK

5.1. KANPO KONTSULTAK

2024an egindako kanpo kontsultak 107.124 izan ziren guztira. Horietatik % 45,2 Ospitaleko profesionalak artatu zituzten eta % 54,8 Osakidetza langileek.

Egindako kontsulta guztietatik, lehen kontsultak % 39,6 izan ziren eta ondorengo kontsultak % 60,4.

Espezialitateen arabera, 107.124 kontsultetatik Traumatologia izan da lehena 20.844 kontsultarekin (% 19,5); ondoren, Otorrinolaringologia 18.074rekin (% 16,9), Errehabilitazioa 17.539rekin (% 16,4), Oftalmologia (% 14,3) eta bosgarren lekuan Neurologia (% 6,8).

ESPEZIALITATEEN ARABERA	Kop.	%
Kardiologia	1.620	1,5
Dermatologia	1.752	1,6
Kir. Kardiobaskularra	1.914	1,8
Erreumatologia	4.372	4,1
Medikuntza orokorra	4.531	4,2
Urologia	7.162	6,7
Neurologia	7.304	6,8
Oftalmologia	15.354	14,3
Errehabilitazioa	17.539	16,4
Otorrinolaringologia	18.074	16,9
Traumatologia	20.844	19,5
Bestelakoak	6.658	6,2
BATURA	107.124	100


Aipatzekoa da 2024an asistentzia eskaintza zabaldu egin zela espezialitate berri bat sartuz (Neurokirurgia), eta Kirurgia Ortopedikoa eta Oin eta Orkatilako Traumatologia azpi-espezialitatea sendotu egin zela.



Kontsulta egin duen profesionalaren arabera



Motaren arabera



5.2. LARRIALDIAK

Larrialdi Zerbitzuak Etengabeko Arreta Gune (EAG) gisa funtzionatzen du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzurako. Premiazko arretaren beharrei erantzuteaz gain, laguntza jarraitutasuneko zerbitzu bat ere ematen du aseguru etxe pribatuen estaldura duten pertsonentzat.

2024an 52.491 larrialdi erregistratu ziren. Larrialdi guztietatik, % 92,67 Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan artatu ziren, eta gainerako % 7,33a etxeko larrialdien arretaren bidez.


Ospitaleko Larrialdi zerbitzuan Medikuntza Orokorra izan zen kasu gehien artatu zituen

espezialitatea 20.851 kasurekin (% 39,72), eta ondoren Traumatologia 13.183 kasurekin (% 25,11). Astelehenetik ostiralera profesional espezialista bat egon zen, 10:00etatik 14:00etara, eta gainerako denboran guardia lokalizatua izan zuen. Horien atzetik daude Kanpoko larrialdi medikoak 3.849 kasurekin (% 7,33) eta Erizaintzako arreta 3.144 jarduerarekin (% 5,99).

Finantzatzaileari dagokionez, larrialdien % 81,45 Osakidetzari egokitu zitzaion, eta % 18,55, berriz, aseguru erakundeei eta paziente pribatuei.



LARRIALDIAK	Kop.	%
Beste espezialitate batzuk	1.751	3,34
Otorrinolaringologia	1.671	3,18
Oftalmologia	2.339	4,46
Kir. Orokorra eta Digestio Aparatua	2.638	5,03
Urologia	3.065	5,84
Erizaintza	3.144	5,99
Kanpoko larrialdi medikoak	3.849	7,33
Traumatologia	13.183	25,11
Medikuntza Orokorra	20.851	39,72
GUZTIRA	52.491	100





5.3. OSPITALIZAZIO MEDIKO-KIRURGIKOA

Ospitalizazio mediko-kirurgikoaren eremuak hiru atal ditu: Egoitza Zainketako Unitatea, Zainketa Aringarrien Unitatea eta Unitate Kirurgikoa.

5.3.1. OSPITALIZAZIO OROKORRA

2024an 1.443 ospitaleratze eta 1.443 alta erregistratu ziren. Espezialitateen arabera, nagusienak hauek izan ziren: Traumatologia 683 ospitaleratzerekin (% 47,3), ondoren Zainketa Aringarriak 508rekin (% 35,2) eta Kirurgia Plastikoa 142rekin (% 9,8).

Egonaldien arabera, horien % 41,8 Mendekotasuna duten Helduen Desgaitasun Fisikoko Uni-

tateari (MHDFU) dagozkio, eta % 40,6, Zainketa Aringarrien Unitateari.


Finantzaketaren jatorriari dagokionez, % 59,81 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzutik eta beste erakunde publiko batzuetatik etorri zen; % 34,79 aseguru erakundeetatik eta gainerako % 5,41 paziente pribatuetatik.

ESPEZIALITATEA	SARRERAK	%	EGONALDIAK	%
Traumatologia	683	47,3	2.145	13,0
Zainketa Aringarrien Unitatea	508	35,2	6.710	40,6
Kirurgia Plastikoa	142	9,8	192	1,2
Otorrinolaringologia	23	1,6	20	0,1
Barne Medikuntza	12	0,8	217	1,3
Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatukoa	24	1,7	30	0,2
Neumologia	35	2,4	211	1,3
MHDFU	5	0,3	6.899	41,8
Bestelakoak	11	0,8	90	0,5
Guztira	1.443	100	16.514	100

5.3.2. EGUNEKO OSPITALEA

Eguneko ospitaleak espezialitate kirurgikoetako pazienteak artatzen ditu batez ere. 2024an 3.358 ospitaleratze izan ziren, garrantzitsuena Traumatologiako espezialitatea 1.609 ospitaleratzerekin, guztizkoaren % 47,9; Oftalmologia 482 ospitaleratzerekin (% 14,4); Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatukoa 415ekin (% 12,4); Angiologia eta Kirurgia Baskularra 316ekin (% 9,4); Otorrinolaringologia 250ekin (% 7,4); Digestio Aparatua 220ekin (%6,6); Kirurgia plastikoa 35ekin (% 1); eta beste espezialitate batzuk 31ekin (% 0,9).

OSPITALIZAZIOA, JATORRIAREN ARABERA



ESPEZIALITATEA	Kop.	%
Traumatologia	1.609	47,9
Oftalmologia	482	14,4
Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatukoa	415	12,4
Angiologia eta Hodietako Kirurgia	316	9,4
Otorrinolaringologia	250	7,4
Digestio Aparatua	220	6,6
Kirurgia Plastikoa	35	1,0
Beste espezialitate batzuk	31	0,9
Batura	3.358	100

5.3.3. ZAINTZA ARLOA

Zaintza arloak zaintzan jartzen du arreta, sendatzea ezinezkoa denean. Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitalean honako modalitate hauek daude: Zainketa Aringarrien eta Egoitza Zainketen unitateetako ospitalizazioa (Mendekotasuna duten Helduen Desgaitasun Fisikoaren Unitatea, MHDFU), eta zainketa aringarrien etxez etxeko arreta. "la Caixa" Fundazioarekin lankidetzan (Gaixo-

tasun aurreratuak dituzten pertsonentzako arreta integrala izena duen programaren barruan), laguntza emozionala emateko arreta psikosozialeko programak, bakardadeari arreta emateko (Bizitzaren Amaiera eta Bakardadea Programa), espazioak giza-tiartzeko (Bihotz Bihotzez), eta sentsibilizazio programak garatzen dira (Santurtzi, Herri Zaintzailea).

Arreta Psikosozialeko ekipoa (APSE)

	Pazienteak		Senideak		Doluan dauden pertsonak		Dolu taldeak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Berriak	535	21,1	823	40,7	82	7,4	1	100
Jarraipena	2.000	78,9	1.200	59,3	1.026	92,6	0	0
Guztira	2.535	100	2.023	100	1.108	100	1	100



Bizitzaren Amaiera eta Bakardadea Programa (BAB)

Programa horien helburua da bakardadeak eragindako sufrimendu esperientzia arintzea gaixotasun aurreratua duten pertsonengan, haiei lagunduz.

BAB PROGRAMAREN EGOERA SANTURTZIKO SAREAN	
Entitate zaintzaile aktiboak sarean	12
Boluntarioen entitate aktiboak	9
Lagundutako pertsona berriak	905
Lehenagotik lagundutako pertsonak	500
Lagundutako pertsonak guztira	1.405
Boluntario berriak	150
Lehenagotik zeuden boluntarioak	562
Boluntarioak guztira	712
Akonpainamenduak	25.796

Ospitaleratzea

Jarriaan ageri diren datuek bi ospitalizazio unitateen mugimenduen batura erakusten dute: Zainketa Aringarriak (ZAU) eta Mendekotasuna duten Helduen Desgaitasun Fisikoko Unitatea (MHDFU).

	Artatutako pertsonak		Egonaldiak	
	Kop.	%	Kop.	%
MHDFU	24	4,4	6.899	49,1
ZAU	519	95,6	7.144	50,9
Guztira	543	100	14.043	100

ZAU	Artatutako pertsonak	
	Kop.	%
Onkologikoak	339	65,3
Pluripatologikoak	180	34,7
Guztira	519	100

Bihotz bihotzez-De todo corazón (Espazioak humanizatzen)

Hasieratik Ospitaleak eta Zainketa Aringarrien Unitateak zaintza espazioak humanizatzeko lan egiten dute, eta, horrela, leku intimo eta hurbil bat sortzen dute, hainbat protagonista bertara joan ahal izateko (gaixoak, senideak, boluntarioak eta profesionalak). Protagonista horiek amankomunean daukate gaixotasun kroniko aurreratuaren esperientzian edo azken fasean elkarrekin bizitzeak, zaintzeak eta laguntzeak adierazi nahi duena eta horrek guztiak dakarrena.

Etkez etxeko arreta (Zainketa Aringarrien Etxeko Laguntza Taldea)

	Artatutako pertsonak	
	Kop.	%
Onkologikoak	122	61
Pluripatologikoak	78	39
Guztira	200	100

Sentsibilizazio programa: 'Santurtzi, Herri Zaintzailea-Comunidad Cuidadora'

Programa honen helburua da gaixotasun aurreratuaren eta bizi amaieraren aurrean jarra sozial eta kulturalak hobetzea, eta egoera horretan dauden pertsonen gizarte euskarria eta bizi kalitatea sustatzea.

Hitzaldiak	9
Bertaratuak (estimazioa)	420

Hobeto Zaintzeko Institutua

Asistentziazkoa ez den baliabide bat da, 2018an sortua, bizitzaren amaieran arreta ona jasotzearen eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzearen garrantziari buruzko dibulgazioan eta gizartearen sentsibilizazioan laguntzeko. Bere helburua da, era berean, Ospitaleko Zainketa Aringarrietako Unitatearen esperientzia partekatzea, osasun zientzien arlo horretan interesa duten profesionalak preskuntza emanaz, eta, laguntzeari dagokionez, profesionalak ez diren zaintzaileei. Institutuaren beste helburu batzuk aholkularitza, ikerketa eta berrikuntza dira, hori guztia bizitzaren amaieran pertsonak hobeto zaintzeko.

Jarduera mota	Kop.	%
Dibulgazioa	45	27,6
Prestakuntza	36	22,1
Ikertzailea	12	7,4
Aholkularitza	70	42,9
Batura	163	100



5.4. ARLO KIRURGIKOA

Especialitatea	OSPITALERA-TZEAREKIN		ANBULATORIOA		OROKORRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia	758	78,0	1.957	40,6	2.715	46,8
Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatua	23	2,4	586	12,1	609	10,5
Oftalmologia	0	0,0	515	10,7	515	8,9
Kirurgia Plastikoa	153	15,7	333	6,9	486	8,4
Angiologia eta Hodietako Kirurgia	0	0,0	327	6,8	327	5,6
Otorrinolaringologia	30	3,1	297	6,2	327	5,6
Urologia	4	0,4	280	5,8	284	4,9
Digestio Aparatua	0	0,0	244	5,1	244	4,2
Minaren Unitatea	0	0,0	209	4,3	209	3,6
Dermatologia	0	0,0	59	1,2	59	1,0
Bestelakoak	4	0,4	18	0,4	22	0,4
Batura	972	100	4.825	100	5.797	100

2024an 5.797 interbentzio kirurgiko egin ziren. Horietatik 972k (% 16,80) Ospitalean ingesatzea eskatu zuten, eta 4.825ek (% 83,2), berriz, ambulatorio izaerakoak izan ziren.

Especialitateen arabera, 2.715 ebakuntza (% 46,8) Kirurgia Ortopedikoan eta Traumatologian egin ziren; ondoren, Kirurgia Orokorrean eta Aparatu Digestiboan 609 (% 10,5); Oftalmologian 515 (% 8,9); Kirurgia Plastikoa 486 (% 8,4); eta Otorrinolaringologian eta Angiologian eta Kirurgia baskularrean, bakoitzean 327 (% 5,6).

Finantzetaren jatorriari dagokionez, % 54,5 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzutik etorri zen; % 40 aseguru erakundeetatik eta gainerako % 5,5 paziente pribatuetatik.

Nabarmenezkoa da USE+MyMobility proiektuaren sendotzea: abenduaren 31n 430 paziente zeuden erregistratuta proiektuan, egin-dako protesi kirurgia guztien % 95. Horietatik % 49,8 aldakako protesiei zegozkien; % 37,4 belauneko protesiei; eta % 12,8 belauneko konpartimentu bakarreko protesiei.

Protesi mota	Kop.	%
Belauna	161	37,4
Aldaka	214	49,8
Belauneko konpartimentu bakarreko protesia	55	12,8
Guztira	430	100


5.5. ERREHABILITAZIOA

Asistentzia eskaera handienetakoa duen Ospitaleko eremu bat errehabilitazioa da. Osasun publikotik eratorritako pazienteak eta paziente pribatuak artatzen ditu, bai eta aseguru pribatuen osasun edo motordun ibilgailuen polizak (trafiko-istripuen kasuan) dituztenak ere.

Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan kalitatezko errehabilitazio tratamendua emateko lan egiten da, ahalik eta itxaronaldi txikienarekin.

2024an 324.388 errehabilitazio saio egin ziren. Terapia motaren arabera, zinesiterapia (saioen % 61,72) eta elektroterapia (saioen % 26,29) nabarmentzen dira.

Finantzaketaren jatorriari dagokionez, % 65,8 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzutik etorri zen; % 33,7 aseguru erakundeetatik eta gainerrako % 0,5 paziente pribatuetatik.



5.6. ZERBITZU OROKORRAK: LABORATEGIA ETA ERRADIODIAGNOSTIKOAK

Osasun zerbitzuak emateko funtsezko printzipioetako bat kalitatezko arreta eskaintzea da. Horretan lagundu du, besteak beste, Ospitaleak dituen instalazioak eta diagnostiko bitartekoak hobetzeak.

Azpimarratzekoak dira laborategiaren jardura, aztertutako 194.985 determinazioekin, eta azterketa erradiografikoena, Ospitalean egingdako 29.334 azterketarekin: 13.695 ekografia egin dira; erresonantzia magnetikoarekin 9.197 miaketa egin dira, eta 3.560 ordenagailu bidezko tomografia axial.

DIAGNOSI PROBAK	Kop.
Laborategiko determinazioak	194.985
Azterketa erradiografikoak	29.334
Mamografiak	545
Ekografiak	13.695
EMN (erresonantzia magnetiko nuklearra)	9.197
OBTA (ordenagailu bidezko tomografia axiala)	3.560

6. ARRETA ESPIRITUAL ETA ERLIJIOSOKO ZERBITZUA

Ospitaleko Arreta Espiritual eta Erlijosoko Zerbitzuaren (AEEZ) helburua da artatutako pertsonen eta haien familien beharrian espiritual eta erlijiosoerantzutea, bai eta pertsona laguntzaileena ere (langileak, boluntarioak eta emaileak), gaixoari arreta osoa ematen laguntzearen.

2024rako helburu espezifiko nagusiak honako hauek izan ziren: Ospitalearekin harremana duten pertsonen arreta espiritual eta erlijiosoa ziurtatzea, eta gaixoei, egoiliarrei eta senideei haien behar espiritual eta erlijiosoetan laguntzea. Beste helburu batzuk etengabeko prestakuntza, ospakizunak eta Zerbitzuaren zabalkundea izan ziren.

Jardueren laburpenean, lagundutako pertsona kopurua ez ezik, akonpainamenduzko bisitak ere nabarmentzen dira.

Lagundutako pertsonak guztira	533
Akonpainamenduzko bisita kopurua	1.110
Otoitzean laguntzeko ekintza kopurua	330
Ospakizun berezien kopurua	20
Gaixoen Azken igurtzien kopurua	60
Bestelako jardueren kopurua	46
Gogoeten saio kopurua	22
AEEZ ekipoaren bilera kopurua	7
Elizbarrutiko taldearekin egindako bilera kopurua	7
Prestakuntza ekintzen (online) eta aurrez aurrekoen kopurua	12
Ospitaleko beste talde batzuekin izandako lankidetzak kopurua	17



7. ETIKA ETA BIOETIKA

2024ko ekainaren 26an San Joan Jainkoarenaren Etika Asistentzialeko Batzordea (SJJEAB) akreditatu zen Euskadirako. Bere jarduera eremuak, Gipuzkoako eta Bizkaiko San Joan Jainkoarenaren ospitaleez gain, Kantabriako Autonomia Erkidegoko Santanderreko Santa Clotilde ospitalea ere hartzen du, Osasun Sailburuordetzaren ebazpenean agertzen denez. Akreditazioaren ondoren, Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioan sartu dute SJJEAB, azaroaren 12ko ebazpenaren arabera.

Bestalde, kontsulten protokoloaren dokumentua landu da, eta Batzordera iritsi diren hainbat gai eztabaidatu dira.

Etika Asistentzialeko Batzordea kontsultarako eta diziplinarteko organo bat da, osasun zentroetako profesionalei eta erabiltzaileei zerbitzua ematen diena, laguntza lanaren ondorioz sor daitezkeen arazo etikoak aztertzeko eta konpontzeko aholkuak emateko sortua; bere azken helburua praktika klinikoaren dimentsio etikoa eta osasun laguntzaren kalitatea hobetzea da.



8. ELKARTASUN ARLOA

Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitalea, sortu zenetik, San Joan Jainkoarena Ospitale Ordenaren ongintzara lotuta egon da.

Elkartasun arloa ospitalearen barruan nahiz kanpoan artatzen diren pertsonentzako zerbitzu gisa egituratzen da, bai eta ospitalearen bereizgarri gisa ere.

Elkartasuna hasiera-hasieratik dago Ospitale Ordenan, eta, gaur egun, Espainiako San Joan Jainkoarena probintzian antolatzen da, honako eremu hauen bidez: nazioarteko lankidetzak, gizarte ekintza, sentsibilizazioa, lankidetzak eta borondatezko lana.

Nazioarteko lankidetzak:
New Kru Town

2024an egindako nazioarteko proiektu solidarioaren helburua Monroviako (Liberia) New Kru Town auzoko 60 emakumeren ahalduzko ekonomikoarekin jarraitzea eta baliabideen gaineko aukerak, irismena eta kontrola areagotzea izan zen. Dagoen pobreziaz gain, emakume izateak bizitzeko errenta nahikoa lortzeko aukerak murrizten ditu. Horregatik, biztanleria aktiboa izateko adinean dauden emakumeen artean kapitalerako irismena (baliabide ekonomikoak) handitzea eta enpresa izpiritua (ekintzailera) hobetzea, funtsezkoa zen eta da haien ahalduzkoerako, baita familientzako errenta duina lortzeko eta auzoko mikroekonomia hobetzeko ere.

Horrela, Artisau Merkatu Solidarioaren XIV. Edizioa egin zen, martxoaren 8an inauguratua. 2024an egindako beste jarduerak batzuk honako hauek izan ziren: Liburu Solidarioaren Udaberriko eta Udazkeneko Azokak, Gabonetako Loteriaren eta Gabonetako Saskiaren partaidetzen salmenta, eta, lehen aldiz, Gabonetako Artisau Merkatua, abenduaren 3tik 13ra egin zena, langileen eta boluntarioen laguntzarekin. Era berean, Mendeurrenako ekitaldien barruan, organo eta tronpetak kontzertu bat egin zen helburu solidarioarekin. Guztira, 20.300 euro eman ziren, arestian aipatutako ekimenetan lortutakoak.

Gizarte Ekintza: Familia eta Pertsona Zaurgarrientzako Elikaduren Laguntza Programa

Pertsona eta Familia Zaurgarrientzako Elikaduren Laguntza Programaren helburua baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsona eta familientzako oinarrizko elikadura beharra osatzea da. Elikagaien Bankuarekin eta Santurtziko Udalarekin lankidetzan egiten da.

2024an 14.675 kg elikagai ez-galkor banatu ziren. Urte honetan Europar Batasunak Europako Gizarte Funtz Plus-en bidez (EGF+) bultzatutako eredu aldaketa bat finkatu da, aurretik zegoen Pertsona Behartsuenentzako Europako Laguntza Programa (FEAD) bertan behera utziz. Horrek esan nahi du elikagaiak gutxiago ematen direla zuzenean, familia guneetarako diru txartelaren modalitatearen truke.

2024an San Joan Jainkoarena Ospitaleko banaketa zentroaren onuradun izan ziren familiak, batez beste, 77 izan ziren. Apirilean 84 familia izan ziren, eta abenduan, berriz, 54. Aldaketa hori eredu berria martxan jartzeak eragin zuen.

Onuradunak 233 izan ziren, eta urteko batez bestekoa 210,6 izan zen. Horietatik 34,8 12 urtetik beherako haurrak ziren, hau da, guztizkoaren % 16,5. Helduak, berriz, 176,7 izan ziren (% 83,5).

Gainera, uztailean eta abenduan talde horrentzako arropa jaso eta emateko kanpaina bana antolatu zen, eta abenduan Gabonetarako jostailuak banatu ziren.



Boluntarioritza

Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitaleak garrantzi handia ematen dio boluntarioen integrazioari. Ospitalearen presentziak zerikusia du, halaber, boluntarioek gaixoari eta haren familiari eskaintzen dieten arretaren kalitatearekin.

Boluntarioritzak 2024an egin zituen jardueren artean honako gai hauekin zerikusia dutenak aipa daitezke, besteak beste: gaixoei laguntzea; osasun kontsultetara laguntzea; terapia okupazionalerako laguntza; aisialdiko, denbora libreko eta jaiegunetako jarduerak; Arreta Espiritual eta Erlijosoko Zerbitzuaren (AEEZ) jardueretan parte hartzea; Ospitalera ospitale-eratzera edo kontsultetara joaten diren pertsonen harrera egitea; eta Pertsona eta Familia Zaurgarrientzako Elikaduren Laguntza Programan laguntzea. Ikastetxeetan egindako sentsibilizazio kanpainetan, janari bilketan, elkartasun ekimenetan eta boluntarioritza azoketan ere parte hartu zuten.

Era berean, nabarmentzekoa da Ospitaleak #EducaSJD programaren barruan harremana duen hiru ikastetxeekin duen lankidetzeta, honakoak hain zuzen: Portugaleteko Santa María Ikastetxea, La Mennais eta Nuestra Señora del Carmen Ikastetxea eta Santurtziko San José

Carmelitas Ikastetxea. #EducaSJD sentsibilizazioarako hezkuntza programa bat da, eta bere helburua da gazteek kolektibo ahulenekiko duten kontzientzia areagotzea eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonen estigmaren aurka borrokatzea.

2024an 46 pertsonak lagundu zuten Ospitaleko boluntarioritzan, % 58,7 emakumeak ziren eta % 41,3 gizonak. Batez beste 65 urte zituzten, eta urtean 4.094 ordu inguruko dedikazioa eskaini zioten.

Sentsibilizazioa

Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitaleak garatzen dituen sentsibilizazio programak honako xede hauetara zuzenduta daude: alde batetik, gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen zaintzaileei laguntza eta trebetasunak eskaintzea, haien bizi kalitatea hobetzeko; bestetik, boluntarioritzako erakundeei eta elkartei pertsona horiekiko zaintzaile komunitateen testuinguruak (errukitsuak) sortzeko hausnarketak ahalbidetzea; eta, era berean, iritzi publiko munduko beste leku eta pertsona batzuen premiei buruz kontzientziatzea, nazioarteko lankidetzaren bidez.

9. ERABILTZAILEAREN KALITATEA ETA ESPERIENTZIA

Kalitatearekiko konpromisoa

Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitaleak 2024an kalitatearen aldeko apustuarekin jarraitu zuen, maila eta zerbitzu guztietan. Konpromisorik handiena ISO 9001:2015 arauaren akreditaziotik abiatu zen. Urtean zehar, AENO-Rek jarraipen ikuskaritza egin zuen, eta aldekoa izan zen Zainketa Aringarrietako Unitatean (ospitalea eta egoitza), Bloke Kirurgikoan (kirurgia aurrekoa, kirurgia barnekoa eta kirurgia ostekoa) eta Errehabilitazioan. Ospitaleak ISO 9001:2015 estandarraren aldeko apustua egin du, mundu osoan aitortutako ziurtagiria delako, erabiltzaileen, pazienteen eta interes taldeen gogobetetzea hobetzeko. 2025ean zerbitzuen ziurtagiriak berritu nahi dira.


Erabiltzailearen esperientzia


Erabiltzailearen esperientzia neurtzeko, sei hilean behin inkestak egiten zaizkie Ospitaleko eremu hauetako baten zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsoneri: Larrialdiak, Kanpo kontsultak, Errehabilitazioa eta Ospitalizazioa: Zainketa Aringarrien Unitatea eta Mendekotasuna duten Helduen Desgaitasun Fisikoko Unitatea (MHDFU).

Urteko asebetetze maila orokorra, arloka, honakoa da:

ARLOA	ASEBETETZEA	ZGL
Kanpo Kontsultak	8,4	8,4
Zainketa Aringarriak	8,8	9,6
Mediko-Kirurgikoa	8,8	8,9
Errehabilitazioa	7,6	6,7
MHDFU	7,0	-
Larrialdiak	7,8	7,8
Etxez etxeko Zainketa Aringarriak	9,1	9,1

Zainketa Aringarrien Unitatearen asebetetze maila handia nabarmentzen da. Aldi berean, Net Promoter Score-k (NPS) 47,5 puntu ematen dizkio ospitaleari. Zainketa Aringarrien balorazioa nabarmendu behar da 97 puntuarekin.





10. OSPITALEAREN MENDEURRENEKO EKITALDIAK

2024a mugari gogoangarria izan zen Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitalearentzat, bere Mendeurrenaren ospakizunak markatua. Mende bateko dedikazioa, bokazioa eta konpromisoa bizkaitarren osasunarekin. Hainbat ekitalditan islatu zen, kultura eta zientzia alorretatik hasi eta espiritualtasunera eta elkartasunera iritsi arte, historia eta gizatasunaren kontaktuzun bakarra osatuz.

Ospakizunei martxoan eman zitzaien hasiera, Santurtziko Dorretxean (1) atzera begirako argazki erakusketa batekin. Erakusketa hori irekita egon zen hilabete horretako 1etik 21era bitartean. Erakusketa bisual hau abiapuntu izan zen Ospitalearen ehun urteko historia markatu zuten une garrantzitsuak gogoratzeke, bisitariak irudi eta oroitzapenen zeharkaldi batean murgilduz.

Martxoaren 7a eta 8a aukeratu ziren Mendeurrenaren inaugurazio ofizialerako, Oriol Jauregi Hotel historiko eta hurbilean egin zen ekitaldi

instituzionalerako. Ekitaldi horretan pertsona ospetsuak izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria, Amador Anaia, probintziako nagusia, eta Fuensanta Icaza de la Sota, Fundación Benéfica Aguirre Patronatuko presidentea, Karmele Tubilla Santurtziko alkateaz eta beste agintari batzuek (2,3,4,6,7) gain. Oraingoan, *Santurtziko San Joan Jainkoarena ospitalea: 100 urte bizkaitar minduak zaintzen* liburua (5) aurkeztu zen, komunitatearen zerbitzura mende baten esentzia jasotzen duen lana.

Martxoaren 8ko eguna, San Juan de Dios eguna (8), Anaia Amador Fernandez buruzuen mezaren solemniteteak markatu zuen. Keinua sinboliko bat izan zen ospitaleko lorategian granado bat (9) landatzea, San Joan Jainkoarena ospitalearen funtsa definitzen duen Misio Partekatua irudikatuz. Gainera, XIV. Artisanu Merkatu Solidarioa (10) inauguratu zen, Monrovia (Liberia) dagoen New Kru Townen kausarako dirua bildu zuena, ospitaleak lankidetzarekiko duen konpromiso soziala berretsiz.



Zientziaren arloan, hainbat topaketa antolatu ziren, osasunaren zainketan humanizazioa eta espezializazioa sustatzearen alde. Martxoaren 15ean Erizaintzako Jardunaldia (11) egin zen 'Zainketak Gizatiartuz' lelopean, eta apirilaren 25ean 'Zainketa Aringarriak San Joan Jainkoarenaren eredu asistentzialetik' izeneko jardunaldia egin zen (12,13). Gainera, urriaren 10ean eta 11n Guggenheim Museoak 'Bilbao Hip and Knee Meeting 2024' (21) hartu zuen, estatuko eta nazioarteko adituak bildu zituen traumatologiari buruzko kongresua.

Kulturak ere zeresan handia izan zuen mendeurrenean. Maiatzean Ospitaleko kaperan organo eta tronpeta kontzertu batekin gozatu genuen (15). Bertan Norbert Itrich eta Basilio Gomarinek Haydnen *San Joan Jainkoarenaren Ohorezko Meza* eta *La Misión* filmaren soinu banda interpretatu zituzten, besteak beste. Uztailean Bilboko Koral Elkarteak (18) *Mozarten Koroatze Meza* bikaina eskaini zuen, eta irailean Hans Zimmer soinu banden konpositorearen omenaldia Candlelight-en kontzertu batekin ospatu zen (19).

Alderdi espirituala Granadara egindako erromesaldiarekin ere nabarmendu zen (26), 'Abegikortasunaren 0 Km-a' leloarekin, apirilaren 11tik 14ra egina, Ospitalearen misioa gidatzen duen espiritualtasunean sakonduz. Era berean, maiatzaren 9an, José María Bermejo Anaiak eta Lourdes Casasek '100eko espiritualtasuna' izeneko hitzaldia eskaini zuten (14), eta maiatzaren 28an, berriz, Bilboko elizbarrutiko ospitaleetako arreta espiritualeko taldeen topaketa izan zen (16).

Ospakizunaren harri bitxietako bat Gaizka Urrestik zuzendutako *Lehen ehun urteak* (22) dokumentalaren aurkezpena izan zen, Ospitalearen historia, jaiotza eta erronkak kontatzen dituen. Lan hunkigarri honen estreinaldia azaroaren 8an izan zen Guggenheim Museoan (23), eta bertan izan ziren, besteak beste, Mikel Torres lehendakariordea eta Santurtzi eta Portugaleteko alkateak.

Mendeurrenaren amaiera ekitaldiak urriaren 3an ospatu ziren, Jesus Etayo Anaia nagusia buru zuen meza solemne batekin eta Amador Fernandez Anaiak lagunduta. Jardunaldia amaitzeko anaidetasun afaria egin zen (20), eta langile beteranoenei eta erretiratuei omenaldia egin zitzaien. Proiektu handi hori ahalbidetu dutenen dedikazioa eta ahalegin kolektiboa aitortzeko aukera izan zen.

Urtean zehar Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitaleak hainbat sari jaso zituen, bere bikaintasuna eta konpromisoa aitortzeko. Horien artean, Jose Carrasco Doktorea-Máximo Aguirre Jauna Saria (25) nabarmendu zen, Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiak eta Sociedad Bilbainak emana. Horrez gain, aipamen berezia jaso zuen Antonio Menchaca Fundazioaren Elkartasun Sarietan (17), eta Ezkerraldeko Deia-Laboral Kutxa Hemendik Sariak ere jaso zituen (24).

San Joan Jainkoarena Ospitalearen mendeurrena denboran zehar egindako bidaia sakona izan zen, lortutakoaren ospakizuna eta etorkizunera emandako begirada, betiere helburu berak gidatuta: bizkaitarrak zaintzen jarraitzea, ehun urteko erakunde honen ezaugarri den arduraz eta gizatasunez.

11. NABARMENDU BEHARREKO BESTE ALDERDI BATZUK

Ospitaleko sare sozialetako profiletan bideo laburrak jarriz jarraitu zen komunikazio ildoak. Bideo horietan, osasun aholkuak emateaz gain, Traumatologia, Zainketa Aringarriak, Errehabilitazioa, Minaren Unitatea, Kardiologia, Erizaintza eta Pediatria bezalako zerbitzu eta espezialitateen berri ematen da.

Nabarmentzekoa izan zen, halaber, Viviendo en la Frontera podcast aitzindaria. Erizaintza taldeak sustatzen du, «zainketak ikusarazteko». Hilero argitaratzen da, eta Ivoox, Spotify, Amazon Music eta You Tube plataformetan zabaltzen da. Podcast-ean medikuntza, erizaintza, psikologia, fisioterapia, gizarte langintza, arreta espiritual eta erlijiosoak, erizaintzako zaintza osagarriak, arteterapia eta boluntariotzako profesionalez gain, gaixoen eta senideen bizipenen testigantzak biltzen dira, gaixotasun aurreratuetako eta bizi amaierako egoeretan daudenena.







Era berean, Lagun Aro Proiektuarekin jarraitu zen. Proiektu horren bidez, errehabilitazio eta fisioterapia zerbitzu bat eskaintzen da, patologia horiengatik bajan dauden langileak bideratzen dituzten enpresako medikuekin koordinatuta, Santurtziko eta Durangoko gure zentroetan. Han errehabilitazioko mediku batek artatzen ditu kontsultan, eta hark

zehazten du zenbat fisioterapia saio egin behar diren, eta, ondoren, txosten bat egiten du, enpresako medikuek langilearen laneko alta balora dezaten. Proiektu honen helburua da patologia osteomuskularren ondorioz aldi baterako ezintasun egoeran dagoen pertsonari lan jarduerara itzultzen laguntzea.

Proiektu horrekin batera, fisioterapia kontsulta bat ireki zen Durangon, Lagun Aroko asegurudunen kolektiboko osasun laguntzako pazienteentzat.



Ospitaleak presentzia izan zuen nazio mailako foro zientifikoetan. Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitaleak Zainketa Aringarrien Espainiako Elkartearen (SECPAL) kongresu nazionalaren azken edizioan, Malagan urriaren 17tik 19ra egin dena, poster formatuko lau komunikazio zientifiko aurkeztu zituen, bere Zainketa Aringarrien Unitateko eta Arreta Psikosozialeko Taldeko (EAPS) profesionalek eginak.

Asistentzia eremuan kirurgia plastikoko (konpontzailea) eta barne medikuntzako espezialista berriak sartu ziren, eta Loturako Osasun Unitatearen (LOU) proiektua sendotu egin zen, azken belaunaldiko teknologia txertatuz, hala nola kirurgia robotikoa eta MyMobility aplikazio mugikorra.



Azpitarratzekoak dira, era berean, Ospitaletik gertu dauden klub edo erakundeekin hitzarmenak sinatzea, hala nola Barakaldoko Zuazo Eskubaloi Elkartearekin, Santurtziko Dinamo San Juan Club Futbol Elkartearekin, Getxoko Real Club Jolasetarekin edo Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin.



Ospitale familiak irailean utzi gintuen Federico Sanchez Anaia agurtu zuen, Ospitalean 30 urte baino gehiago eman ondoren. Goian bego.

Pertsonak eta Balioak arloari dagokionez, 2024ko otsailean hitzarmena luzatzea nabarmendu zuen, 2023tik 2025era bitarteko epealdirako.

Kultura instituzionalean trebatzeko beste une garrantzitsu bat Granadara egindako 35 laguneko bidaia izan zen, anaien, langileen eta Ospitaleko boluntarioen artean.

Arreta espiritual eta erlijiosoaren eremuan, zerbitzuaren berezko jarduerari ekin zitzairen berriro, akonpainamenduei, ospakizunei eta ospitaleko beste eremu batzuei laguntzeari dagokienez.

Elkartasun arloa garatzen jarraitu zen, Nazioarteko Lankidetzeta, Gizarte Ekintza, Sentsibilizazioa eta Boluntarioritza arloetan. Urteroko ekimen gisa, Gabonetako Eskulangintza Azoka egin zen, eta Liburu Solidarioaren Azoka jarraitu zuten udaberrian eta udazkenean, bai eta jaiotza artistiko baten erakusketa ere, Bilboko Santos Justo y Pastor Belenzaleen Elkartek egina.



Azkenik, Fundación Benéfica Aguirre eta Fundación Vizcaína Aguirreri ehun urte hauetan Ospitaleari baldintzarik gabe eta etengabe emandako laguntza eskertu behar zaie, bai eta mendeurreneko ekitaldiei emandakoa ere.



12. ZERBITZUEN ZORROA

ESPEZIALITATE MEDIKOAK

Alergologia

Digestio Aparatua

Kardiologia

Zainketa Aringarriak

Dermatologia

Medikuntza Orokorra

Barne Medikuntza

Neumologia

Neurofisiologia

Neurologia

Pediatria

Errehabilitazioa eta Medikuntza Fisikoa

Erreumatologia

ESPEZIALITATE KIRURGIKOAK

Anestesiologia

Angiologia eta Hodietako Kirurgia

Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatukoa

Kirurgia Ortopedikoa eta Traumatologia: oina eta orkatila, belauna, aldaka, bizkarrezurra, sorbalda, eskua eta eskumuturra, terapia biologikoak

Kirurgia Ortopedikoa eta Haur eta Gazteen Traumatologia

Kirurgia Plastikoa, Konpontzailea eta Estetikoa

Obstetrizia eta Ginekologia

Oftalmologia

Otorrinolaringologia

Urologia

LARRIALDIAK

- Medikoak
- Traumatologikoak
- Arreta Jarraituko Puntua (EOZ-Osakidetza)
- Etxez etxeakoak

ZERBITZU OROKORRAK

Laborategia

Hematologia

Biokimika

Mikrobiologia

Erradiologia

X izpiak

Erresonantzia magnetikoa

Ordenagailu bidezko tomografia axiala (OTA)

Ekografoa

Mamografoa

Ortopantomografoa

ZERBITZUAK ETA UNITATEAK

Errehabilitazioa eta Fisioterapia

Zainketa Aringarrien Unitatea

Etxez etxeko Zainketa Aringarriak

Minaren Unitatea

Disautonomia eta Parkinson Unitatea


Trafiko Istripuen Unitatea
(kudeaketa integrala)

Desgaitasun Fisikoa eta Mendekotasuna duten Helduen Unitatea (DFMHU)




Gizarte Lana eta Boluntarioritza

Arreta Espiritual eta Erlijosoko Zerbitzua (AEEZ)

Kalitatea eta Erabiltzailearen Arreta



Hospital | Ospitalea
San Juan de Dios
Santurtzi **100**
Urte | Humanidad
1924-2024 y Ciencia

 Murrieta Etor. 70 · 48980 Santurtzi
 Metro Bilbao 2. linea · Peñota Geltokia
 Parking



www.hospital-sanjuandedios.es/eu/

13. MENDEURRENAREN URTEA, IRUDITAN

Irudien korrespondentzia ikusi 20. eta 21. orrialdeetan.



(1)



(2)



(3)



(4)



(5)



(6)



(7)



(8)



(9)



(10)



(11)



(12)



(13)



(14)



(15)



(16)



(17)



(18)



(19)



(20)



(22)



(21)

(23)



(24)



(25)



(26)

